



Altsasuko Udala
Ayuntamiento de Alsasua
I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61
FAX 948 56 38 55
www.alsasu.net
alsasu@alsasu.net
✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

ALTSASUKO UDAL HILERRIAREN ERABILPENA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA (NAO 54 zbk, 2001eko maiatzak 2 eta NAO 199 zbk 2019ko urriaren 8)

I. TITULUA **Xedapen orokorrak**

1. artikulua. Altsasuko udal hilerria zerbitzu publikoko ondasuna da, Udalaren aginduen menpekoa eta haren jabetzakoa, hari baitagozkio bere kudeaketa, administrazioa, zuzendaritza eta zainketa, ordenantza honetako xedapenen arabera, deusetan ukatu gabe beste administrazio publikoen eskumen berariazkoak.

2. art. Altsasuko Udalak ondoko eginkizunak beteko ditu, Altsasuko udal hilerriarekin zerikusia dutenak:

a) Hilerriaren antolaketa, zaintza, mantentze-lanak eta egokitzapena, baita hura begiratzea eta garbitzea ere, ordenantza honetako 8. artikuluan xedatutakoa ukatu gabe, eta hilerriaren segurtasuna nahiz zerbitzuaren antolamendu egokia bermatuko ditu.

b) Partikularrei baimena ematea hilerrian edozein motatako lan edo muntadura egiteko, baita horiek zuzendu eta ikuskatzea ere.

c) Lurren eta hilobien antolaketa, banaketa, erabilera eta aprobetxamendua, hilobien gaineko kontzesioak ematea eta nolanhiko ehorzketa-eskubideen onarpena, baita horiek aldatzea eta haien iraungipena deklaratzeko ere.

d) Ordenantza honetan ezartzen diren eskubideak eta tasak, eta etorkizunean lege ezarriko direnak eskuratzea.

e) Hilotzak eta gorpuzkiak ehortzi, hobitik atera, berrehortzi eta tokiz aldatzea, hilotzen gaineko osasun araei jarraikiz.

f) Giza gorpuzkiak izan gabe ere, hilobiak hustu eta garbituta gelditzen diren zerak -hilkutxak, arropak, abituak, hil-oihalak eta gainerakoak- desegitea, ordenantza honetako 18. artikuluan aurreikusitakoa ukatu gabe.

g) Higienearekin ikusteko izanik eman diren edo etorkizunean emanen diren neurriak betetzea.

h) Hilerriarekin eta hilotzen gaineko osasun jarduerarekin zerikusia izan dezaketen Udalaren bestelako ahalmen administratiboak.

3. art. Alkatetzak bere ardurapean izanen ditu hilerriaren antolaketa eta funtzionamendua, horretarako behar adina langile izanen du eta bere eginbehar hau ahalik eta hobekien betetzeko proposamen zehatzak aurkeztuko dizkio Udalari. Orobat, ordenantza honetan xedatutakoa betearazteko behar diren erabaki puntualak hartuko ditu. Udalak ordenantza honek bere gain



uzten dituen eginbehar eta egitekoen kudeaketa beste bati manatzen ahal dio, kontratatzeko behar den prozedura ezarriz.

4. art. Hilerrian hilobi edo nitxo hutsak izanen dira udalerriko biztanleriaren zentsuaren arabeko kopuruan, edo horietarako lur aski bederen bai. Hilobiak era erregularrean banatuko dira, hurrenez hurren zenbakituak eta horretarako prestatuko den planoan grafiatuak.

II. TITULUA

Hilerriko barne antolamendua eta gobernua eta hilobiak egin, gorde eta zaintzea

5. art. Ez da inolako egintzarik baimenduko, zuzenean nahiz zeharka hilerri barreneko seriotasuna urratzea edo hilobiak profanatu, desegin edo bortxatzea badakar. Debeku da era berean inolako animalia motarik sartzeta eta kalez kaleko salmenta, edozein salgairekin. Debeku horiek hilerriaren eraginpeko eremura ere zabaltzen ahalko dira.

6. art. 1. Ezin izanen da lanik edo obrarik egin Udalaren baimenik gabe, eta horiek egiteko artikulua honetan ezartzen diren arauak beteko dira. Aipatu obrak eta muntadurak, haiek egokitu, zaharberitu edo aldatzea barne, kontzesioaren xede izan diren hilobietan egiten direnak, partikularren kontura izanen dira beti.

2. Lurzatiaren kontzesiodunak egin beharreko jarduketaren dokumentazio zehaztua aurkeztu beharko du, bertan xehetasunez azalduko direla neurriak, materialak eta kokapen zehatza. Orobat, behar den obra lizentzia eskatuko du.

3. Udalak, bere teknikarien bidez, eskabidean atzematen diren hutsuneak zuzentzeko agindu ahal izanen du, eta ordenantza honen arabera behar diren baldintzak edo aldaketak ezarri ahal izanen ditu.

4. Debeku da hilerrian piezak edo marmolak zerratzea, bestelako lanak egitea harri, marmol edo metalekin, legarrak kentzea edo gisakoak egitea ere. Inguruabar bereziak direla eta horrelakoak egin behar baldin badira, Udalari eskatu beharko zaio baimena, edo bestela hilerriko ehorzketa zerbitzuaren kudeaketa esleiturik duen enpresari, eta horrek esan beharko du lan horiek zehazki zer tokitan egin beharko diren.

5. Obrak egiteko materialik sartu nahi bada, edo obrak berak egin nahi badira, Alkatetzak horretarako finkatzen duen ordutegian egin beharko da. Materialak, lanabesak, lurra edo ura prestatu eta uzteko, aipatu organoak horretarako ezartzen dituen tokiak erabiliko dira, eta kasu bakoitzean egoki juzgatzen diren aurreneurriekin.

6. Obra bukatutakoan, tokia garbitu egin beharko dute eta handik eraman obra-hondakinak, puskak edo materialen hondarrak.

7. Ezin izanen da hilerrira sartu edo handik atera hilobien zerbitzurako gairik, Udalaren baimenik gabe.



Altsasuko Udala
Ayuntamiento de Alsasua
I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61
FAX 948 56 38 55
www.altsasu.net
altsasu@altsasu.net
✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

8. Hilerrian izandako jarduketan ondorioz sor daitezkeen gainerako aferetan, bertako arduradunek eta Alkatezak kasu bakoitzean ezartzen dutenari jarraituko zaio.

7. art. Udalaren organo eskudunek edo ehorzketa zerbitzuen esleipena hartzen duen enpresak hilerriko zaintza eta garbiketa lan orokorren ardura dute.

8. art. Titularrek behar bezalako baldintzetan atxikiko dituzte beren hilobiak, zerak eta muntadurak, segurtasunez, higieenez eta apainduren aldetik ere bai. Hilobia garbitu ondoren, partikularrek hilerritik eraman beharko dituzte lore arrastoak eta bestelako objektuak.

Partikularrek hilobiak garbitzeko eta zaintzeko betebeharrean huts egiten badute, eta narriatze zantzurik baldin bada, Alkatezak errekerimendu egingen die interesatuei, hogeita hamar egunez beren zabarkeriaz eragindako narriadura konpontzeko. Horrela ez eginez gero, hori aski izanen da ehorzketak egiteko baimena ez emateko.

Epe hori iraganik, Udalak subsidiarioki egiten ahal ditu lan horiek, interesatuen kontura egin ere. Horiek berehalakoan ordaintzen ez badute, kontzesioa iraungiko da eta hilobia Udalaren esku geldituko da.

9. art. Udalak ez du erantzukizunik bere gain hartuko, bere zerbitzuko ez diren jendeek hilobiak edo haien gainean uzten diren gauzak ebatsi edo desegiten badituzte.

10. art. Hilobiak edo hilerriko ikuspegi orokor nahiz partzialak irudi, argazki, marrazki edo pinturetan atera nahi izanez gero, Udalaren baimena beharko da lehenik.

III. TITULUA

Gorputegia

11. art. 1. Hilotzak gorputegian utziko dira hilerrira ailegatu eta berehala ehortzi behar ez badira.

2. Agintari judizial eta sanitarioek hilerrian ehortzi gogo diren hilotzak gorputegian sartzeko agindua eman dezakete, heriotzaz geroztik 24 ordu iragan ez badira.

3. Partikularrei ez zaie utziko gorputegian egotea hilotzak dauden bizkitartean, agintariak halako denbora mugatu batean egiten dituzten bisitaldietan salbu.

IV. TITULUA

Hilotzak ehortzi, hobitik atera, lekuz aldatu eta haiei autopsia egitea

12. art. 1. Hilotzen inguruko Osasun Neurriei buruzko Erregelamenduaren arauen ariora eta Titulu honetan xedatutakoari jarraikiz dira hilotzak ehortziko, hobitik aterako eta lekuz aldatuko.

2. Inolaz ere ez dira onartuko hilotzen bildukinak, gorpuen berezko deskonposizioa galarazten edo berandutzen badute.



3. Ehorzketa gorpuzki-hondarrak dituzten hilobietan egiten denean, hondar horiek alde aurretik murriztu eginen dira, betiere alde aurretik abisua emanda eskubidearen titularrari edo hura ordezkatzeko duenari. Gorpuzkiak berrehorzketa ahal dira hilotz bat sartzen den unean.

4. Osasun baimena beharrezkoa izanen da hilotzak edo gorpuzkiak beste hilerri batera eraman nahi direnean, arauetan aurreikusitako kasuetan.

13. art. 1. Ehorzketarako ekartzen den edozein hilotzi lur emanen zaio, betiere legezko izapideak bete badira.

2. Ehorzketak egiteko, udal bulegoetan edo ehorzketa zerbitzua esleitua duen enpresarenetan ondoko agiriak aurkeztu beharko dira.

a) Ehorzketako eskabidea, eskaera-orrako datuak behar bezala beteta, ondotik erregistrora eramateko, ehorzketa-eskubidearen titularrak edo haren ordezkariak sinatua, eta titularra bera denean hil dena, haren ahaideek edo hurbilekoek. Kontzesioaren titularra ez denean, ehorzketako eskabidea egin beharko du kontzesioa eskatzen duen harek.

b) Lurperatzeko lizentzia, salbu eta errautsen ehorzketa baldin bada.

c) Eskatzailea kontzesioaren titularra ez denean, eskubidearen eskualdaketa bere izenean dagoela egiaztatuta beharko du, ordenantza honetako V. tituluko V. kapituluan araututakoari jarraikiz, eta horretarako bere gain hartuko ditu bai inguruabar hori frogatzeko obligazioa, titulartasun aldaketarako prozeduran, bai haren jarduketagatik sortzen ahal diren erantzukizunak.

14. art. 1. Hilotzak hilerrian berean lekuz aldatzeko atera daitezke hobitik, baita beste hilerri batera eramateko ere. Kasu batean nola bestean hilobiaren gainean eskubidea duen titularraren eskabidea beharrezkoa izanen da, artikuluko honetako 3. idatz-zatian aurreikusitako kasuan izan ezik.

Hilerriaren barreneko beste hilobi batera eramateko, berrehorzketa egin nahi den hilobiko titular eskubidedunaren baimena beharko da.

2. Nolanahi ere, osasunari buruz indarra duten xedapenetan ezarritakoari jarraikiz aterako dira hilotzak, bisitetarako ez diren orduetan eta osasunaren aldetik behar diren neurri guztiak hartuz.

3. Udalak egin beharreko obra nagusiak egitearen ondorioz tokiz aldatu behar direnean, eskubidearen titularrari alde aurretik abisua emanda, berrehorzketa aldi baterako nitxoetan edo hilobietan eginen da, Udalak xede horretarako gordeko baititu, edo behin betiko hilobietan, eta halakorik bada, ehorzketa-eskubidea hilobi berrira pasatuko da.

15. art. Hilotzak hobitik zein egunetan eta zein orduetan atera behar diren, horren berri emanen zaie Udalean horren ardura dutenei, jarduketara hori ikusi ahal izan dezaten lana gainbegiratzeko arren.



Altsasuko Udala
Ayuntamiento de Alsasua
I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61
FAX 948 56 38 55
www.alsasu.net
alsasu@alsasu.net
✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

Epea ahitzeagatik hilotza atera behar denean, ordea, ez da inolako gaztigurik eman behar izanen.

16. art. Hilerrian berean beste hilobi batera aldatzeko nahiz beste hilerri batera eramateko atera diren gorpuzkinak ez dira gorputegira eramaten ahal.

17. art. 1. Heriotzaren arrazoiak osasun arriskurik ez badu, baltsamatu gabeko hilotzak baldintza hauetan ateratzen ahal dira:

a) Lurperatu ondotik gutxienez ere bost urte iraganda, panteoietan ehortzitako hilotzak atera daitezke, arrunt hezurturik baldin badaude, edo nitxoetan ehortzitakoak. Heriotzaren arrazoia osasun arrisku handikoa izan bazen, ez da egiten ahal heriotzatik bost urte iragan arte.

b) Lurpean ehortzitako hilotzak lurperatu zirenetik gutxienez ere zortzi urte iraganda atera daitezke, arrunt hezurturik baldin badaude.

c) Hilobi mota guztietan ehorzketa zinkeko hilkutxan egin baldin bada, edozein momentutan atera eta lekualdatzen ahal da, betiere hilkutxa kontserbazio egoera ezin hobean badago.

Aipatu baino epe laburragoetan ez da hilotzik kanporatu ahal izanen, epailearen aginduz ez bada.

2. Ekainetik irailera bitarte, biak barne, ez da ateratzerik bat ere eginen epaile batek manatu ezean.

Hala ere, hilabete horietan hildako lagun baten ezkontide edo 2. mailako ahaide odolokide izandakoaren gorpuzkinak ateratzen ahal dira, hildakoarekin batean eta haren ondoan ehortzi ahal izateko.

Betiere, ehorzketa hori egin ahal izateko a), b) edo c) baldintzak bete beharko dira.

3. Hilotz baltsamatuak hobitik atera eta lekuz aldatzeko baimena noiznahi ematen ahal da, baina zerraldoaren kanpoko kutxa aldatu egin beharko da ongi kontserbaturik ez badago.

18. art. Hobitik ateratzean, hil-kutxetan agertzen diren gai baliotsuak, protesiak izan ezik, hildakoaren oinordekoek eska ditzakete, betiere eskabidea egiten badute hobitik atera baino lehen, beraien nortasuna eta oinordetza frogatu ondoren. Udalak egoki deritzon helburua emanen die erreklamatzeko ez diren gauzei.

19. art. Bai hilotz bat ateratzen denean bai lekuz aldatu eta berriz ere ehorzten denean, horren oharra jasoko da erregistro liburuan, dagokion hilobian eta haren titularraren baimenaz.



V. TITULUA

Ehorzketa-eskubideak

I. KAPITULUA

Xedapen orokorrak

20. art. Hilobiak eta nitxoak erabiltzeko ehorzketa-eskubidea titulu honek aipatzen duen kontzesioa emateko egintzarekin batean sortzen da. Udalak eman eta onartuko ditu ehorzketa-eskubideak, ordenantza honen hastapenei jarraikiz.

21. art. Ehorzketa-eskubide guztiak dagokien erregistro-liburuan inskribatuko dira eta kontzesioak behar den titulua luzatuz egiaztatuko dira, hori guztia ordenantza honetako 29. artikuluan aurreikusitakoari jarraikiz.

22. art. Ehorzketa-eskubideak hilerriko hilobi edo nitxoaren erabilpena baizik ez dakar, hilerria Udalaren jabaria baita, ordenantza honen 1. artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

23. art. Hilobiak, nitxoak, halakorik egiten bada, edo hilerrian dagoen beste edozein eraikuntza, merkataritzarik kanpoko ondasuntzat jotzen dira. Hortaz, ez dira salerosten ahal, ezta trukatu edo inola eskualdatu ere. Ordenantza honetan aurreikusten diren eskualdaketak baizik ez dira baliozkoak.

24. art. Paratzen diren izaera artistikoko lanak Udalaren esku geldituko dira kontzesioa bukatzen denean. Lan horiek, dagokien hilobian paratutakoan, ez dira udal hilerrietik ateratzen ahal Udalaren baimenik gabe. Araubide bera aplikatuko zaio hilerriko hilobietan paratzen den edozein muntadura finkori, artistikoa ez bada ere.

Muntadura finkotzat hartuko da hilobiari erantsita edo eratzikita dagoen edozein, baldin eta, kenduz gero, narriadura eragiten ahal bazaio hilobiari, den txikiena ere.

25. art. 1. Titularra testamenturik utzi gabe ez ahaidetik gabe hiltzen bada, ehorzketa-eskubidea Udalaren esku geldituko da, zer epetarako eman zen, hura iragan ondoan.

2. Edonola ere, iraungipena gertatzen denean, kontzesioaren xede den hilobia Udalaren esku geratuko da, eta eskubidearen iraungipenetik ez da inolako ordainketarik edo kalteordainik sortuko titularraren alde. Aldez aurretik abisua emanda, gelditzen diren gorpuzkiak hobi orokorrera eramaten dira, salbu eta hildakoaren senideek, edo haien baimena duten beste batzuek beste hilobi batera eramateko eskatzen badute, edo pertsona ospetsuen gorpuzkiak badira eta Udalak hilobian uzteko erabakitzen badu.

26. art. Ehorzketa-eskubideaz baliatzeak behar den tasa edo ordainarazpena ordaintzea dakar berarekin, behar den ordenantza fiskalean xedatzen denari jarraikiz, hartan arautuko baitira zergagaia, subjektu pasiboak, zerga oinarria, tasaren sortzapena, kudeaketa arauak, dirubilketa, eta arau-hausteak eta zehapenak.



Altsasuko Udala
Ayuntamiento de Alsasua
I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61
FAX 948 56 38 55
www.alsasu.net
alsasu@alsasu.net
✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

II. KAPITULUA Kontzesioak

27. art. Kontzesioak honela ematen ahal dira:

A) Pertsona fisiko bakar baten izenean.

B) Erljio komunitate edo elkarte baten izenean, edo laguntzarako edo ospitale gisako establezimendu batenean, horiek administrazio publikoak onartuak badira eta beren kide, onuradun edo babespekoek baizik ez erabiltzeko bada.

C) Korporazio, fundazio edo legez eraturiko entitateen izenean, beren kide edo enplegatuek baizik ez erabiltzeko bada.

D) Bi ezkontideren izenean, lehen eskuraketaren unean.

E) Hil den pertsonaren guraso agintea edo legezko zaintza duenaren izenean, haurrak lurperatzeko hilobiak direnean.

28. art. Aseguru konpainiak eta gisakoak ez dira, inola ere, ez kontzesioen ez bestelako ehorzketa-eskubideren titular izaten ahal. Hortaz, Udalari dagokionez, hitzartzen dituzten poliza edo kontratuen klausulek ez dute ondorioz izanzen, kasuan kasuko ehorzketa-eskubidea ordaintzeko behar den kapitala emateaz beste eskubide batzuk eman nahi badizkiete beren aseguratuak.

29. art. Kontzesioak behar den tituluaren bidez egiaztatuko dira eta hura udal administrazioak luzatuko du.

Kontzesio tituluetan hauek jasoko dira:

1.-Hilobia eta titularra identifikatzeko datuak.

2.-Kontzesioa onartu zuen udal erabakiaren data, eta epea.

3.-Hirugarrenei eskualdatzearen gaineko xehetasunak.

30. art. Hilobi titulu bat hondatu, ebatsi edo galduz gero, haren kopia luzatuko da, interesatuek aldeztatik eskaria eginda.

Hilobi tituluetakoz izenetan edo bestelakoetan akatsik hautematen bada, arrazoitu eta frogatu ondoan zuzenduko dira titularrak eskabidea egin ondotik.



Altsasuko Udala

Ayuntamiento de Alsasua

I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61

FAX 948 56 38 55

www.alsasu.net

alsasu@alsasu.net

✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

31. art. Ehorzketa-eskubidearen kontzesio administratiboaren bidez erabiliko dira hilerriko lur guztiak eta hura Udalak onartuko du ordenantza honi jarraikiz, 14.3 eta 40. artikuluetan xedatutakoa izan ezik.

32. art. Ez da inoiz-inola epemugarik gabeko kontzesiorik emanen.

33. art. Udalak osoko bilkuran onartuko du nitxoak ehorzketarako erabiltzea, interesatuek alde zurretik eskatuta.

A) Adinez nagusia bada, jende guztiak eskatzen ahal du nitxoaren kontzesioa, hilobitako nahiz kolunbariotako.

B) Eskabideak lehenesterakoan, lehentasun ordena hau hartuko da kontuan:

1. Altsasuko bizilagun bat eskatzaile, famili unitate bakoitzeko.
2. Altsasuko bizilaguna ez baina bertan etxebizitza duen bat eskatzaile, famili unitate bakoitzeko.
3. Altsasuko bizilaguna ez baina jatorrizko bertako bat eskatzaile, famili unitate bakoitzeko.
4. Maila bakoitzean eskabidearen aurkezpen ordenari ere lehentasuna ematen ahal zaio.

C) Eskatzaile bakoitzari, gehienez ere, bi hilobitarako kontzesioa emanen zaio, aurreko idatz-zatietan ezarritako eran ulerturik, baina artikuluko E) idatz-zatian agintzen dena ukatu gabe, eta salbuespena eginez haurrak lurperatzeko hilobiekin, hauek, aurretik aipatutakoekin batera, libreki eman ahalko baitira, beharren arabera.

D) Gaur egun familia batek titulurik gabe, kontzesio tazito gisa, erabiltzen dituen hilobiak, oraingo erabiltzaileek eskatu ahalko dituzte, ordenantza honetan arautzen diren kontzesioek dituzten baldintza beretan, eta erabateko lehentasuna izanen dute kontzesiorako titulua ematerakoan, artikuluko honetan ezartzen den kopurua gainditu gabe eta bertako E) idatz-zatian agintzen dena ukatu gabe.

E) C) eta D) idatz-zatietan xedatutakoa gorabehera, eskatzaileak gaur egun kide bakarreko famili unitatea osatu eta bi hilobi edo nitxo eskatzen baditu, frogatu beharko du familiako beste kide batendako beharra duela eta kide hori 45. artikuluko aipatzen dituen ahaidetasun mailetako batekoa dela. Horretarako kide horren baimen idatzia beharko da, baita Altsasuko errolda agiria. Nolanahi ere, Udalak uko egiten ahalko dio eskatutako kontzesioari, baldin eta uste badu proposatutako pertsonak ez duela ordenantza honetan ikusten diren baldintzetatik bat ere betetzen, eta ez duela aski frogatu haren beharra.

F) Katetoria bateko eskatzaile guztien kontzesioak emateko aski hilobirik edo nitxorik ez badago, Udalak aukeratu ahalko du katetoria horri kontzesiorik ez ematea eta gelditzen diren hilobiak gordetzea 4. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako.



Altsasuko Udala
Ayuntamiento de Alsasua
I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61
FAX 948 56 38 55
www.altsasu.net
altsasu@altsasu.net
✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

33. art. G), Altsasuko udal hilerriaren erabilpena arautzen duen ordenantza;

“G) Kontzesioak 10 urte iraunen du eta 10 urteko luzapena ematen ahalko da eta beste 10 urtetarako beste bat. Luzapenean, kontzesioa onartu zenean indarra zuen prezioaren ehuneko 25 ordaindu beharko da lehen luzapenean, eta ehuneko 50 bigarrenean. Epemugaren eguna baino lehenago eskatu beharko da luzapena.

Lehen 10 urteak edo lehenbiziko luzapenari dagozkion beste hamarrak iraganda eskaria egiten bada gorpuzkinak nitxotik ateratzeko kolunbario batera eraman beharrez, ordenantza fiskalean kolunbarioetarako ezartzen den tasa ordaindu beharko da, eta ez nitxoetan lurperatzekoa.

Nitxoetan ehorztek, eta interesdunak eskatuta, hirugarren luzapen bat eman ahal izanen da, beste 10 urtetarako. Nolanahi ere, luzapena emateko ezinbestekoa izanen da denboraldi horretan kanposantuan premiak asetzeko adina horma-hilobi egotea. Kasu horretan, kontzesioaren prezioaren %75 ordaindu beharko da.

Hirugarren luzapenak iraun bitartean, hartan utzitako horma-hilobiak erabili beharko balira, nahiko horma-hilobirik ez egoteagatik, Udalak gorpuzkinak atera eta luzapena bukatu arte falta den denborari dagokion zati proportzionala itzuliko die interesdunei.”

34. art. Hilobi edo nitxo berean hurrenez hurren egiten diren ehorzketek ez dute ehorzketak eskubidea bestelakatuko. Hala ere, salbuespen bat egonen da, izan ere kontzesioa edo, bestenez, luzapena bukatzeko falta den epea hilotzak lekuz aldatzeko legez ezarritako denbora baino tikiagoa izan daiteke; beraz, hilotz bat orduan lurperatzen bada, epe hori luzatuko da, egoera behar bezala egokitzeko 17. artikuluan hilotzak hobitik ateratzearen gainean aurreikusitakoari. Salbuespeneko luzapen horren ondotik 25 eta 33. artikuluek diotena aplikatuko da.

35. art. Hilerrian ematen diren lur kontzesio guztiak, ehorzketetarako eta hilobi-zerak paratzeko baizik ez dira ematen, eta xede horretarako mugatuta daude kontzesioen eskubide guztiak.

Hala ere, kontzesio baten titularrak ezin izanen du lurperatzeko ehorzketak eskubidea erabili, hilobia lehenago erabili ez dutenean, 17. artikuluan hilotzak hobitik ateratzeko aurreikusten diren epeak iragan arte. Kasu horretan berriro eskatu beharko du kontzesioa.

Lur kontzesioek ez dute salmentarik sorraraziko. Kontzesioko lurren gainean hilobi-zerak paratzeak ez dakar haien gaineko eskuragarritasun egintzarik.

36. art. Kontzesioetarako aipatu den epeagatik ere, hilerria epe hori ahitu baino lehen itxi behar bada, eskubideen titularrek kalteordaina hartzen ahal dute iragan gabeko epeagatik, nahiz eta kalteordaina kalkulatzeko ordaindutako tasaren zenbatekoa baizik ez den kontuan hartuko, eta ez kontzesiodunak egindako obra edo muntadurena.

37. art. Kontzesioagatik ordaindu beharreko tasa Hilerria erabiltzeko tasak arautzen dituen ordenantzan edo etorkizunean horren ordean eman daitekeenean aldi bakoitzean ezartzen dena izanen da.



Altsasuko Udala
Ayuntamiento de Alsasua
I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61
FAX 948 56 38 55
www.alsasu.net
alsasu@alsasu.net
✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

Tasa horri urtero gehituko zaio aurreko urteari dagokion K.P.I.ren gorabehera, eta Udalak, osoko bilkuran hartutako erabakiaren bidez, edonoiz aldatzen ahalko du.

Ordainketa 30 egun baliioduneko epean egingen da, jakinarazten denetik. Kontzesio horrek ez du inolako ondoriorik sortuko ordainketa egiaztatzen ez den bitartean. Ordainarapen horren subjektu pasiboa kontzesioaren titularra da.

38. art. Hilobien kontzesioen titularrek baimena izanen dute gurutze edo hilarri bat jartzeko, besterik ez, ordenantza honetako I. eranskinean adierazten diren ereduari jarraikiz. Nitxoetan, berriz, hilarriak baizik ez dira paratu ahal izanen, eta hilarrien gainean kristalexko itxitura bat nitxoa ixteko.

Udaleko teknikariak eta eraikitzaileak, biek batera egingen dute zuinketa, eraikuntza plano ofizialean zehazten den gisan koka dadin.

Kontzesioak berarekin dakar, kasua bada, aipatu planoan azaltzen diren aldeak egokitzeko eta urbanizatzeko obligazioa.

Bi kontzesiodun ukitzen dituzten obretan, mehelinei buruz indarra duten xedapenek aginduko dute.

Lurrerauzketa, eta obra amaitu arte izan daitezkeen bestelako gastuak, kontzesiodunaren kontura izanen dira, hilobi bakoitza urbanizatzeko eta egokitzekok barne, hilobiari atxikirik daudela ikusten denean.

Era berean, kontzesiodunaren kontura izanen dira alde aurretik dauden gurutzeak, hilarriak, panteoiak, lauza astunak, etab., kentzeko kostu ekonomikoak, hilobiaren kontzesioari datxekion ehorzketa bat egiteko, baldin eta horretarako lurperatzeko zerbitzu arrunta gainditzen duten bitarteko materialak edo langileak behar badira. Kasu horietan, nola bestelako guztietan, ezartzen diren apaingarriak ordenantza honetan ezarritakoari lotzen ez bazaizkio, aipatu elementuak ez dira berriro jarriko, salbu eta balio artistiko berezia izan eta Udalak horrela erabakitzen badu. Ezartzen diren elementuak ordenantza honetako I. eranskinean xedatzen denari lotuko zaizkio, eta gainerakoan 24. artikuluan aurreikusten denari jarraikiko zaio.

III. KAPITULUA

Hilerriko hilobien erregistroa

39. art. Hilerrian egiten diren hilobi eta zerbitzuen erregistroa sortu da, honako hauek jasoko dituen:

- a) Hilobien identifikazioa.
- b) Kontzesioa eman den data eta ordaindu diren tasak.



c) Eskubidearen titularren izena, deiturak eta helbidea, eta titularrak, bere eskubidea erabiltzeko orokorrean izendatzen ahal duen ordezkariarena.

d) Eskualdaketak, data, titular berriaren datuak eta eskualdaketaren zioa.

e) Ehorzketak, hobitik ateratzeak eta tokiz aldatzeak, honako hauek adieraziz: zein hilotz den, pertsona horren izen eta deiturak, eta jarduketa noiz izan den.

f) Gertakizun eta erreklamazioak: hilobia edo haren ingurua ukitzen duen edozein gertakizun.

Erregistroa Udaleko idazkaritzan eramanen da, eta bertan izanen da, halakorik bada, hilerriaren kudeaketa esleitua duen enpresa. Neurriak hartuko dira datuen segurtasuna bermatzeko eta horiek aldatzea, galtzea edo baimenik gabeko tratamendu edo inoren sarrera eragozteko.

Inskripzioetan akats materialik bada, ofizioz zuzenduko da, akatsa argi eta garbi adierazi eta zuzentzeko idaztohar berria eginez.

IV. KAPITULUA

Ongintzako ehorzketak eta hobi orokorra

40. art. 1. Lur emateak dakartzan gastuak ordaintzeko diru baliabiderik batere ez duten pertsonen hilotzak ehorzteko hobiak izanen dira, aski den kopuruan; horiek ez dira kontzesioetan sartuko eta haren erabilpena ez da inolako eskubideren menpe egonen.

2. Hilobi hauetan ez da hilarririk edo hilartizik paratuko eta udal jabego direla baizik ez da agertuko.

41. art. 17. artikuluan ezarritako epea beterik, gorpuzkinak hobi orokorrera eramanen dira.

42. art. Hildako baten ahaideek ezta beste pertsona interesatuek ez dituzte inola ere hobi orokorrean lurperaturiko hilotza edo gorpuzkiak erreklamatzeko ahal.

V. KAPITULUA

Ehorzketa-eskubideen eskualdaketa

43. art. Udalak hilobien ondorengotzari buruz egiten duen onarpenak ondorioak sorraraziko ditu administrazio aldetik, baina horrek ez dakar inolako aurreusterik arlo zibilean aferarik baldin bada.

44. art. Kontzesioan emandako hilobiak eta nitxoak, hala bada, oinordetza bidez eskualdatzen ahal dira, haien titularrak testamentua egin ala ez, baita dohaintza bidez ere, horrelakoetan araubidea ondorengotzarena bera izanen delarik.



Altsasuko Udala

Ayuntamiento de Alsasua

I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61

FAX 948 56 38 55

www.alsasu.net

alsasu@alsasu.net

✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

45. art. Ehorzketa-eskubidearen titularrak inter vivos egintzaren bidez, dohainik laga dezake, honako hauei hain zuzen: titularraren ezkontideari, horien bien lerro zuzeneko ahaideei, lerroa gorakoa nahiz beherakoa izan, mugarik gabe, eta alboko lerrotik odolkidetasunaren 4. gradu zibileraino eta ezkontzahaidetasunaren 3. graduraino, eskualdaketaren aitzin-aitzinetik titularrarekin gutxienez ere bi urtez bizi direnei, eta irabazi asmorik gabe ongintza edo laguntza lanetan ari diren pertsona juridikoei.

Titulartasun aldaketa dohainik eta inter vivos lagapenaren bidez baimentzen ahal da beste pertsona batzuek, Udalak uste badu zioen bat badela lagapena arrazoitzeko, betiere kontzesioa eman zenetik hilobian inor ehortzi ez bada eta hamar urte iragan badira. Kasu honetan, eskuratzailer berriak kontzesioa eman zenean lurraren truke ordaindu zen prezioaren eta subrogazioaren egunear tarifaren ariora ordaindu behar denaren arteko aldea pagatu beharko dio Udalari.

46. art. Mortis-causa eskualdaketari dagokionez, hots, ehorzketa-eskubidearen titularraren heriotza gertatzen denean, eskualdaketarako eskubidea izanen du eskubidearen oinorde izanik herentziari uko egin ez dionak. Titularrak oinordetzarik xedatu ezean, hilobi eskubidea ahaideei eskualdatuko zaie, lege zibilar ezarritako ordenari jarraikiz. Alargunak kontzesioaren usufuktua baldin badu, horrela jasoaraziko da hilobiaren erregistroko inskripzioan eta usufuktudunak eskubidearen titularrari dagozkion ahalmen eta betebeharrak guztiak izanen ditu.

Eskualdaketa baten ondorioz titular bat baino gehiago bada, ondorengo guztiek beren artean gehiengoz hautatzen dutenaren alde onartuko da ehorzketa-eskubidearen titulartasuna. Hori hiru hilabeteko epearen barnean egin behar da kausatzailearen heriotzatik edo ondorengoak deklaratzeko egintza eman zen egunetik hasita. Udalak ez du titulartasunaren aldaketarik baimenduko adostasun hori frogatzen ez bada, baina utziko dio edozein partaideri ehorzketa-eskubidea erabiltzen, gainerakoak horren aurka ez badaude.

47. Eskubidea nori eskualdatzen zaion modu fedemangarrian zehaztea ezinezkoa bada, titulartasuna behin-behinekoz onartzen ahalko zaio aldaketa eskatzen duenari, baldin eta eskubidea izaten ahal badu 46. artikuluan xedatutakoari jarraikiz. Behin-behineko titulartasun horren muga da ondotik hobitak hilotzak ateratzeko debekua, epaile batek baimendu ez badu, eta hilotz bat ehorztekoko eskubidea erabiltzeko beharrak sortua ez bada. Inork kontra egiten ez badu, titulartasuna behin betiko bilakatuko da hamar urte iragandakoan.

Hilobia erabiltzeko eskubidea aldi bakoitzean nor duen jakiteko, erregistroko liburuan paratuko da nor den eskubide horren edukitzailea eta horregandik abiatuta kontatuko dira betiere 45. artikulua aitpatzen dituen ahaidetasun mailak. Eskubide horien eskualdaketak ere jasoko dira kontzesioaren tituluaren.

Interes kontrajarriak badaude lurperatzeko ehorzketa-eskubidea erabili behar den tokian gainean, era berean jokatuko da, baina Udalak, kasu honetan, beste kontzesio bat esleituko du, behin-behineko titulartasunarekin, jaraunspen-komunitatearen izenean, eskubidearen titulartasuna erabakitzen ez den bitartean.



Artikulu honetan aipatzen diren behin-behineko kontzesioak ez dira behin betiko bilakatuko, behin-behineko titularra 33.c) artikuluan aurreikusitako kasuan sartzen denean edo, Udalaren iritzi, artikulu horretako gainerako kasuetako batean berean ere oinarririk ez duenean kontzesioa eskuratzeko. Horrela gertatzean, behin-behineko titulartasunak ez du ondoriorik sortuko hura onartu eta hamar urte iragan direnean.

48. art. Hilerriko lurren edo nitxoen kontzesioak hilobia erabiltzeko eskubidea sorrarazten die titularrari eta ahaideei, ordenantza honetako aginduei lotuz betiere.

Udalak beste edozein ehorzketa baimentzen ahal du, titularrak baimen idatzia ematen badu aldez aurretik eta baimenaren momentuan dagozkion eskubideak ordaintzen baditu.

49. art. Ehorzketa-eskubide bat zer epetarako eman zen, haren hurrenez hurreneko eskualdaketek ez dute epe hori aldatuko.

50. art. Titularrak uko egiten ahal dio ehorzketa-eskubideari, betiere dagokion hilobian gorpuzkin ehortzirik ez bada. Horretarako eskubidea egiten dio Udalari, eta hura gero berretsi beharko da interesatua bera edo, halakorik bada, haren legezko ordezkaria agertuz.

VI. KAPITULUA

Ehorzketa-eskubideen galera edo iraungipena

51. art. Ehorzketa-eskubidea galdu edo iraungiko da eta kasuan kasuko hilobia Udalari itzuliko, horrelakoetan:

a) Eraikuntzaren aurri egoera dela eta, aurreikusitako txosten teknikoan deklaratu, eta titularrak konpontzeko eta egokitzeko ematen zaion epea betetzen ez badu. Lehenago espedientea ireki behar litzateke eta interesatuari entzutea eman.

b) Hilobia abandonaturik uzten denean. Halakotzat hartuko da, titularra hil eta 3 urte geroago ondorengoek edo herentzia edo bestelako tituluren baten bidez subrogaturiko pertsonak eskaririk egin ez badute beren aldeko eskualdaketa egin dadin.

Ondorengoak edo herentzia edo beste tituluren bidez subrogaturiko pertsonak eskualdaketa eskatzera agertu eta hilobia egoera okerrean aurkitzen badute, hiru hilabete izanen dute hura egokitzeko. Epe hori konponketak egin gabe iraganik eta 8. artikuluko izapideak egindakoan, ehorzketa-eskubidearen iraungipena dekretatuko da, eta Udalaren eskura itzuliko da.

c) Eskubidea zer epetarako eman zen, haiek iragaten direnean.

d) Behar den epearen barrenean eskubideak edo tasak ordaintzen ez badira.

e) Titularrak 50. artikuluan aurreikusitako moduan uko egiten duenean.

f) Hilerrria desagertzeagatik.



Altsasuko Udala
Ayuntamiento de Alsasua
I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61
FAX 948 56 38 55
www.altsasu.net
altsasu@altsasu.net
✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

XEDAPEN IRAGANKORRA

Bakarra.-Iraungiak geratzen dira titulurik gabeko kontzesio tazitoak, honako hilobi edo nitxoei dagozkienak: gaur egun familia batek erabiltzen dituen hilobiak eta ordenantza hau aplikatzearen ondorioz edo behin betikoz onestean kontzesioak emateko irekitzen den prozedura aplikatzeagatik libre gelditzen direnak. Iraungipen horrek ez du inolako kalteordainik edo ordainik sortuko titularraren alde.

Hilobia berriro erabili behar denean, eta aldez aurretik abisua emanda, dauden gorpuzkiak hobi orokorrera eramanez dira, salbu eta hildakoaren senideek, edo horien baimena duten beste batzuek, beste hilobi batera eramateko eskatzen badute, edo pertsona ospetsuen gozpuzkiak badira eta Udalak hilobian gelditzeko erabakitzen badu.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenbizikoa.-Udalaren osoko bilkurari dagokio hasierako kontzesioa ematea eta ehorzketa- eskubideen iraungipena deklaratzeko, ordenantza hau behin betikoz onestean kontzesioak emateko irekitzen den prozeduraren ondoren datorrena.

Hurrengo prozeduretan hilobiak erabiltzeko ehorzketa- eskubidea ematea, eskualdatzea eta iraungitzea berdin onesten ahalko du Udalak osoko bilkuran, nola Alkatetzaren edo beste organo delegatu baten ebazpenaren bidez, udal zerbitzuek egoki funtzionatzeko behar duten aldizkakotasunarekin.

Bigarrena.-Ordenantza honek espreski aurreikusten ez duen orotan, indarra duen legeria sektorialak xedatutakoari eginen zaio men, eta bereziki uztailearen 20ko 2263/74 Dekretuaren bidez onetsi zen Hilotzen gaineko Osasun Arauei buruzko Erregelamenduari eta Hilotzen gaineko Osasunari buruzko maiatzaren 9ko 123/1986 Foru Dekretuari.

Ordezko aplikazioa izanen dute Altsasuko udalerrian indarra duen hirigintzako araudiak eta ondare historikoaren gaineko legeriak ere, lehen xedapen iragankorrean adierazten den eran.

Ordenantza honetan biltzen diren gai fiskalen gainean, ordezko aplikaziokoak izanen dira Altsasuko Udaleko ordenantza fiskal orokorra eta Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 19ko 2/1995 Foru Legea.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza honek indarra hartuko du bere testu osoa Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu ondoko hogeita hamargarren egunean, Toki Administrazioari buruzko Foru Legeko 262.2 artikuluari jarraikiz.



Altsasuko Udala
Ayuntamiento de Alsasua
I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61
FAX 948 56 38 55
www.alsasu.net
alsasu@alsasu.net
✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Bakarra.-Indarrik gabe uzten dira, baliorik ez eraginik ez dutela, ordenantza hau osoki betetzeari kontra edo traba egiten dioten udal mailako lehenagoko xedapen guztiak.

I. ERANSKINA

A) Hilobiburuan gurutzeak edo hilarriak jarri ahal izanen dira, gehienez ere ondoko neurri hauetakoak:

Garaiera: 120 cm.

Zabalera: 60 cm.

Lodiera: 10 cm.

Nitxoei dagokienez, haien zabalera nolakoa, halakoxea izanen dituzte luze-zabalak.

B) Aipatu diren ikur eta apaingarri horien material eta koloreak, derrigorrez, ondoko hauetako zenbait izanen dira:

Tafallako harria.

"Macael" marmol zuria.

"Sudáfrica" marmol beltza edo "Extremadura" urdina.

"Quintana" granitoa.

C) Ez da inola ere baimenduko hilarriak, lauzak, panteoiak edo hilobi-oroigarriak jartzea, aurreko idatz-zatietan adierazitako neurrikoak baino handiagoak edo ezaugarri ezberdinak badituzte.

D) Debeku da, era berean, hilobien inguruan hesiak edo itxiturak, landaresiak edo bestelako landareak jartzea.

E) Hilartitzak, oroigarriak, ezaugarriak eta ikurrak edozein hizkuntzatan jar daitezke, eta hilerriaren izaerari begiratu beharko diote, ordenantzako 5. artikuluan adierazitakoaren arabera.



Altsasuko Udala
Ayuntamiento de Alsasua
I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61
FAX 948 56 38 55
www.alsasu.net
alsasu@alsasu.net
✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

Hirugarrenendako eskubideen aurka jo dezaketen inskripzioen erantzukizuna titularrarena izanen da.